PENTSIO MISERABLEEKIN EZ DAGO HIRI ADISKIDETSURIK

Ekainaren 16tik 18ra Donostiako Kursaalen Adinekoen Hiri Lagunkoien 3. Mundu Biltzarra egingo da, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), IMSERSOk, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) eta Donostiako Udalak antolatuta. Adinekoekin mundu atsegina! Topaketak 60 herrialde baino gehiago bilduko ditu, zahartze aktiboari, irisgarritasunari eta hiri-diseinu inklusiboari buruz eztabaidatzeko.

Kongresuan parte hartzea gustatuko litzaiguke, baina ez Gobernuak, ez GFAk, ez Donostiako Udalak ez digute bertaratzeko aukerarik eman. Agian, erakunde horiek uste izan dute Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) ez duela zortzi urte baino gehiagoko mobilizazioen ondoren, pentsiodunen beharrizanei buruz hitz egiteko besteko entitaterik, nahiz mobilizazio horietan dozenaka mila pertsonak parte hartu duten. 2025eko irailaren 25ean, erakunde horietako kide diren alderdiek (EAJ, PSE) eta VOXek betoa jarri zioten Legebiltzarrean gutxieneko pentsioak LGSraino osatzea helburu zuen Herri Ekimen Legegileari. HEL hori, 145.142 sinadurek, sindikatuek, erakunde sozialek, feministek eta gure herrialdeko 283 pertsona erreferentzialek babestu zuten.

Oraingoan ere ez diguzue hitza eman. Hala egin izan balute, esango genien PENTSIO MISERABLEEKIN EZ DAGOELA HIRI LAGUNKOIRIK; gaur egun 4,6 milioi pentsiodunek Estatuan, 168.966k EAEn eta 51.103k Nafarroan 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztela eta gero, eta pentsiodun gehiago ezin direla hilaren amaierara iritsi. Lan-bizitza oso baten ondoren bizi-baldintza duinak autonomiaz eskuratzeko eskubidea galtzea gobernuen funtsezko kezka izan beharko litzateke. Emakume pentsiodunei pentsio duinak bermatzea ere lehentasuna izan beharko litzateke.

Gaur egun, mendekotasunaren arretarako zerbitzu garesti eta eskasek, koordainketa sanitarioak, etxebizitzaren garestitzeak eta prezioen igoera espekulatiboak ez dituzte adinekoen eskubideak bermatzen, eta eskubiderik gabe ere ez dago hiri lagunkoirik. Eskubideak ez dira iraungitzen adinarekin. Bizi-baldintza duinak dituzten pertsonekin lagunkoiak diren hiriak askoz adiskidetsuagoak dira. Kongresu hau antolatu dutenei (EAEko Gobernua, GFA eta Donostiako Udala) baliabide gehiago eta diskurtso gutxiago eskatzen diegu. Gutxieneko pentsioa Lanbide arte Gutxieneko Soldataraino (LGS) osatu, orain! Mendekotasunaren arretarako eta osasun-zerbitzu unibertsalak.

EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

Donostia, 2026ko ekainaren 16a

CON PENSIONES MISERABLES NO HAY CIUDADES AMIGABLES

Del día 16 al 18 de junio se celebra en el Kursaal de Donostia el 3.er Congreso Mundial de Ciudades Amigables con Personas Mayores organizado por la Organización Mundial de la Salud (OMS), IMSERSO, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia. Con el lema ¡Un mundo amigable con las Personas Mayores! El encuentro reúne a más de 60 países para debatir sobre el envejecimiento activo, la accesibilidad y el diseño urbano inclusivo.

Nos hubiera gustado participar en el Congreso, pero ni el Gobierno ni la DFG, ni el Ayuntamiento de Donostia nos han dado la posibilidad de asistir. Quizá estas instituciones han considerado que el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) no tiene tras más de ocho años de movilizaciones en las que han participado decenas de miles de personas entidad suficiente para hablar de las necesidades de las personas pensionistas. El 25 de septiembre de 2025 los partidos que forman parte de esas instituciones (PNV, PSE) y VOX vetaron en el Parlamento una Iniciativa Legislativa Popular (ILP) para complementar las pensiones mínimas hasta el SMI; una ILP apoyada por 145.142 firmas, los sindicatos, organizaciones sociales, feministas y 283 personas representativas de nuestro país.

En esta ocasión tampoco nos han dado la palabra. Si lo hubieran hecho les hubiéramos dicho que CON PENSIONES MISERABLES NO HAY CIUDADES AMIGABLES; que hoy 4,6 millones de personas pensionistas en el Estado, 168.966 en la CAV y 51.103 en Navarra tienen ingresos inferiores a 1000 euros y cada vez más personas pensionistas no pueden llegar a fin de mes. Perder tras toda una vida de trabajo el derecho a acceder autónomamente a unas condiciones de vida dignas debería ser una preocupación fundamental de los gobiernos. También debería ser una prioridad garantizar a las mujeres pensionistas unas pensiones dignas.

Hoy, el coste de servicios de atención a la dependencia caros e insuficientes, el copago sanitario, la carestía de la vivienda y el incremento especulativo de los precios, no garantizan los derechos de las personas mayores y sin derechos tampoco hay ciudades amigables. Los derechos no caducan con la edad. Las ciudades amigables con personas que disfrutan de unas condiciones de vida dignas lo son mucho más. A quienes han organizado este Congreso (Gobierno de la CAV, DFG y Ayuntamiento de Donostia) les reclamamos más recursos y menos discursos. Complementar la pensión mínima hasta el SMI ¡ya! Servicios de atención a la dependencia y de sanidad universales.

MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA

Donostia, 16 de junio de 2026